

ZAZPIGARREN GAIA: ESTATUA ZUZENBIDEZKO ESTATUA BEZALA

1.ZUZENBIDEZKO ESTATUAREN KONTZEPTUA, OSAGAIK ETA GARAPEN HISTORIKOA

1.1.KONTZEPTUA

Zuzenbidezko estatu batean bai botere publikoak eta bai herritarrak zuzenbide edo arau juridikoen menpekoak izango dira. Botere publikoak eta herritarrak zuzenbidearen menpe bai daude baina horrez gain gutxienezko eskubide batzuen errespetua eta bermea ziurtatuta egon behar da. Horrekin batera planteatzen da eta lotuta dago, boterearen erabilera ez dela diskrezionala, alegia, boterearen erabilera oinarritu behar da aurretik onartuak diren legeetan, hau da, botere publikoak jardun behar dute, aurrez ezagunak eta baliozkoak diren legeen arabera. Legeak onerako ez bada, ez dute atzeraeraginik, hau egiten da herritarrak babesteko estatuak izan ahal dituen herritarrekiko gehiegikerien aurrean.

Zuzenbide estatuaren ideia, normalean herritarrak estatuarengandik babesteko planteatu oi da.

1.2.OSAGAIK

Osagaiak lau dira:


1. Lege inperioaren printzipioa: Legea beste ororen gainetik dago bereziki estatu botereen jardunaren gainetik.
2. Botere banaketaren printzipioa: Ekin nahi da botereen kontzentrazioa esku bakar batzuetan, eta horretarako boterea banatzen da.
3. Administrazioaren legalitatea: Administrazio publikoak erregimen juridiko propio baten arabera funtzionatzen dute, eta hauek aurretik emaniko arauen arabera funtzionatu behar du.
4. Oinarritzko eskubide eta askatasunen bermea: Norbanakoek ditugun eskubideak estatuak babestea



1.3.SUPERLEGALITATE FORMALA ETA MATERIALA

Konstituzioa legeen gainetik kokatzen da (*lex superior*), konstituzioak du posizio hierarkiko nagusia ordenamendu juridikoan. Konstituzioaren *lex superior* benetan bermatzeko dagoen bitarteko nagusia auzitegi konstituzionala dugu, konstituzionaltasun kontrola egiten du auzitegi honek. Superlegalitate hori formala edo materiala izan daiteke. **Superlegalitate formalaz** hitz egiten dugunean esan nahi da, konstituzioak ezartzen dituela bai ordenamendu juridikoarentzat eta bai botere publikoentzat prozedura, funtzionamenduak (funtzionatzeko moduak) eta forma, alegia, legeek, erregelamenduek... (konstituzioaren azpitik daudenak) ezin diote konstituzioan jasota dauden formen kontra egin. **Superlegalitate materialaz** hitz egiten dugunean ordea, esan nahi da, bai botere publikoek eta bai konstituzioaz azpiko arauak ezin dutela konstituzioan jasota dauden printzipio eta baloreen aurka egin.

ITURRI SISTEMA:



1.4.BILAKAERA HISTORIKOA

- **Oinarriko eskubideen bermea:** Ideia hau XVII-XVIII.mendeetan sortutako iraultza liberal burgesetan gorpuzten da, absolutismoaren aurkako erreakzio gisa. Lehenbiziko eskubide zibilak planteatzen dira (inprenta askatasuna...), jabetza eskubidea, eskubide negatiboak direla esan ohi da Estatuari soilik esaten zaiolako herritarrei bakean usteko (ez zapaldu, ez interbenitu...), herritarra babestu estatuaren aurrean.

XIX eta XX mendeetan estatu liberalaren egitura demokratizatzen joango da, poliki-poliki eskubide politikoak eskuratuko dira, sufragio unibertsala lortu arte. Pertsonak lortuko dute eskubidea eremu publikoan parte hartzeko aukera.

XX mendetik aurrera estatu sozialaren ideia planteatuko da, demokraziaren ideia, bozka emateko eskubidea bai, baina horrez gain herritarrei eskubide batzuk bermatu behar zaie, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak.

-Botere banaketa: Absolutismoan botere guztiak esku bakar batean kontzentratuak. Estatu liberalak esaten du, botereak esku bakarretan uzten bada sistema politikoa degeneratu egingo dela, monarkia tirania bihurtuko da (Montesquieu, Rousseau).

Gaur egungo sistema parlamentaristetan botereen arteko kolaborazioa da nagusi. Eta sistema presidentzialistetan aldiz, banaketa zorrotzagoa izan ohi da normalean.

-Lege-inperioa: XIX.mendean konstituzioak dokumentu politikoak ziren eta bilakaeraren poderioz Europan konstituzioak pasatu dira, dokumentu politikoak izatetik arau juridiko nagusi izatera. Horretarako funtsezko elementua → konstituzionaltasun kontrola. Legeen konstituzionaltasuna eta konstituzioaren zurruntasuna. Testu konstituzionalak zurrunik direla esan ohi da moldatzeko oso zaila baita.

2.ZUZENBIDEZKO ESTATUA ESPAINIAR KONSTITUZIOAN

-Oinarrizko eskubideen bermea: Lehen aipamena konstituzioaren hitzaurrean dator, bertan aipatzen da herritarrei babesa eman behar zaiela giza eskubideen arloan; baina ikusi dugun bezala hitzaurre hori balore juridiko oso mugatua dauka, hortaz oinarrizko eskubide eta betebeharrak konstituzioaren lehenengo tituluan arautzen dira.

-Botere banaketa: Esaten da badagoela botere banaketa horizontala (botere exekutiboa batetik, legegilea bestetik eta betearazlea bestetik) eta gero ere dago botere banaketa bertikala (estatu zentralari eta autonomi erkidegoei egiten dio erreferentzia)

-Lege-inperioa: Konstituzioaren 9.artikuluan dator.

